

Elgoibar - 1258. zenb.
XXIX urtea - 2022-09-30



TOKIKOM

BARREN

Ametsa begiz jota

Nerea Arriola



TERTULIAK programa euskaraz berba egiteko beste aukera bat

Astean ordubete, dakizuna hobetzeko eta ez dakizuna ikasteko.
Eta gainera, doan! Euskaraz jarduteak ez daukalako preziorik.

Animatu eta eman izena urriaren 14a baino lehen!

Izena emateko eta informazio gehiago:

Elgoibarko Izarra (943 741 626) / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

AEK euskaltegia (607 601 423) / elgoibar@aek.eus

Udal Euskaltegia (943 742 731) / udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Edurne Izagirre

Psikologoa

Ispiluak



***"Nor bait bihurtzen gara,
beste batentzat
nor bait garen heinean"***

Gizakion garapen psikologikoa gure bizitzako lehen urteetako oinarritzko erlazioen araberakoa izan ohi da; besteekin eta besteen bitartez garatzen dugu gizatasuna eta identitatea, bi aldeko ispilua bezala. Nik zutaz espero dudana eta zuk nitaz espero duzula uste dudana... ispilu jolas honetan zenbait espejismo sortzen doaz...

Gaur egun, askoz konplexuago bihurtu da, zeren aurrez aurreko ispilu jolasaz gain, mundu digitalekoa maneiatu behar dugu. Geroz eta zailago da barruraka begiratzeko denborak hartzea, geure barne errealitatearekin konektatzeko, begiak itxita, isiltasunean; baliteke honetan saiatzeko garenean kanpora begira bizitzeak barruan sortzen duen hutsune sakona sumatzea, eta desatsegina izatea hasieran.

Gure bizitzako lehen urteetan bizirauteko eta behar bezala garatzeko beharrezkoa zaigu begiratuak izatea: nor bait bihurtzen gara, beste batentzat nor bait garen heinean. Ondoren, munduan zein leku izan nahi dugun erabaki eta bide horretan ekiteko garaia iritsi ahal izateko, beharrezkoa da lehen familia eredu horiekin hautsi eta geure kabuz nor garen probatzea.

Baina sozializazioa maila digitalera mugatzen den heinean, oso erraza da ispilu jolas anitz horien artean galtzea; ispilu labirintoetan bezala irteera bilatu ezinik gelditzea, gure ekite gaitasuna oso mugatua baita, isladak maneiatu besterik ezin dugu egin, eta argia aldatzen doan heinean irudia distortsionatzen da. Horrela, denboraren kontzientzia galtzen dugu, geure erritmoak aztoratzen dira; momentu batzuetan munduaren nagusi sentituko gara eta beste batzuetan berriz erabat galduta, hutsik, euskarririk gabe.

Honelakoetan, formula majiko bila etorri ohi zarete, baina oinarrietara itzultzea da egin beharreko lehen pausoa: jatordu eta deskantsu erritmoak finkatu eta mantendu.

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen *Iritzia* eta *Eskutitzak* ataletan adierazitakoen erantzukizunik. *Eskutitzak* ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, *NANA* eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Urriaren 8an Donostia

Urriaren 8an Sarek *Etxera bidea gertu!* lelopean egun osoko egitaraua antolatu du Donostian. Egun berezi honen bidez bi mezu nagusi helarazi nahi ditu: batetik, leloak dioen moduan, euskal presoak etxetik gero eta gertuago daudela eta herritarrok ere etxeratze prozesu hori gauza dadin gertu = prest gaudela. Gertutasun hori aurrerapauso garrantzitsua dela adierazi nahi dugu, eta eskerrak eman bide horretan aktibo izan diren pertsona guztiei, guztion artean aurrera urrats hori ospatuz. Bestetik, lortutakoari garrantzia kendu gabe, oraindik ere salbuespenarekin guztiz amaitzeko bidea egiteke dugula gogorarazi nahi dugu eta herritarrok bide hori egiten jarraituko dugula erakutsi. Horretarako, Izan Bidea dinamikaren baitan gure buruei 3.127.326km egiteko ezarritako erronkari amaiera emango diogu egun horretan ere, azken kilometroak Donostiako kaleetan eginaz. Ondoren, Ilunbera eramango gaituen manifestazio koloretsu bati ekingo diogu, azkenik jaialdiari paso emateko.

Sarek aldarrikapena eta festa batu nahi ditu, beraz, urriaren 8an, Donostian, urrunketaren aurka urte luzeetan elkartzan joan garen herritar oro batuz. Hori hala, dei egiten diegu Elgoibarko herritarrei ere urriaren 8an goizetik

Donostiara gerturatzeko, azken kilometroa egin, manifestazioan parte hartu eta Ilunbeko jaialdiaz gozatzeko. Egun guztirako egitaraua prest dago, adin guztientzako, baita jan eta edateko aukerak ere. Autobusa egongo da goizetik joan eta musika kontzertuak ikusi nahi dituztenentzat. Goizeko 11etan Elgoibartik irten eta goizaldeko 03:00etan bueltatuko da autobusa. Izena Jai Alai eta Lanbroa tabernetan eman behar da.

Sare Elgoibar

Zabalik dago!

1.804 lagunek eman genuen izena lehen edizioan. Bigarrean, berriz, 1.499 izan ginen euskara gehiago erabiltzeko ariketa egitea erabaki genuenok. Gure arteko hizkuntza-ohiturak aldatu edo moldatzeko proposamena da EUSKARADIA. Egiten dugunaren gainean gogoeta egiteko gonbita.

Asteazkenean zabaldu zen hirugarren edizioan norbanakook izena emateko epea. 16 urtetik gorakoentzat da ariketa, euskara jakin edota ulertzen dutenentzat. Belarriprest rola hartzea erabakiko dugu batzuk: euskaraz ulertzen dugula adierazi eta euskaraz dakitenei euskaraz egiteko eskatuko diegu. Beste batzuek, berriz, ahobizi rola aukeratu eta eskara ulertzen duten guztiei euskaraz egiteko ahalegina egingo dugu. Euskara jakin eta ulertzen dugunon artean gehiago egitea da kontua. Gehiagorekin egitea. Gehiagotan egitea. Ekitea. Egitea. Probatzea eta zer sentitzen dugun ikustea.

Elgoibarko EUSKARALDIA Taldea



Juan Jose Panizo Monasterio

2022ko irailaren 27an hil zen, 65 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ni hilen naiz,
baina nire maitasunak bizirik dirau.***



ERAKUNDE-ADIERAZPENA UDALEAN ETA UDALERRIAN, EUSKARALDIAREN HIRUGARREN EDIZIOA SUSTATZEKO



Elgoibarko Udalak honako konpromiso hauek hartu ditu Euskaraldia Elgoibarren bultzatzeko:

- Elgoibarko Udalbatzak bat egiten du 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra Euskal Herri osoan zehar bideratuko den Euskaraldiarekin, eta ekimenaren sustatzaile izango da Elgoibarko Euskaraldia taldearekin batera. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Elgoibarko Udalak, entitate gisa, Euskaraldian izena emango du, horretarako, beharrezko Ariguneak identifikatuz eta bultzatuz.
- Udalkide, herritar eta herriko eragileei dei egiten die urtean zehar izango diren prestaketa-lanetan parte har dezaten eta, bere garaian, Ahobizi eta Belarriprest izan daitezen eta arigunee-tan parte har dezaten.
- Ordezkarri politikoaren egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren esparruaren baitan, eta bereziki, Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta "Arigune" gehien, eta "Ahobizi" eta "Belarriprest" gehien aktibatze-ko urratsak emango dituzte, arduradun politikoak izan, nahiz langileak izan.
- Elgoibarko Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izateko eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.

Benidormeko hilketa matxista salatzeko elkarretaratzea egin zuten martitzenean



Elgoibarko mugimendu feministak deituta, Soralezeko andrearen hilketa gaitzetsi zuten martitzenean dozenaka lagunek Elgoibarren. Kalegoen plazan egin zuten elkarretaratzea, eta Elgoibarko Udalak ere bat egin zuen deialdiarekin. Elgoibarko Udalak adierazpen instituzionala kaleratu zuen honen harira, eta irmoki "gaitzetsi" zuen andrearen heriotza. Gogoratu du emakumeen aurkako indarkeriaren "parte bat soilik" erakusten dutela hilketa matxistek. "Tragedia horrek euskal erakundeok eta gizarte osoak berdintasuna gauzatzeko dugun erantzukizunaren aurrez aurre jarri gaitu", diote adierazpenean.

Espainiako Poliziak astelehenean aurkitu zuen M.L.L., 68 urteko soralezetarraren gorpua Benidormeko bere etxean. Emakumeak bi labankada eta indarkeria zantzuak zituen. Poliziak hilketa matxistatzat jo du, eta biktimaren senarra da ustezko hitzailea, 73 urteko gizonezkoa. Trafiko istripuan hil zen hura. Poliziak jakinarazi duenez, bi hipotesi nagusi dituzte senarraren heriotza azaltzeko: emazteari eraso egin ostean ihesean joan eta auto istripua izan zuela, edo bere buruaz beste egin zuela, autoa bidetik irtenda. Izan ere, gidatzen ari zen autoak hainbat metro egin zituen kontrako noranzkoan, garabi bat zeraman kamioi baten kontra jo aurretik.



Elgoibarren anbulatorio berria egiteko aukerak aztertzen ari da Jaurlaritza

Osasun-zentro eta ospitale gehiago eraiki eta dauden batzuk berrituko dituztela aurreratu zuen Iñigo Urkullu Lehendakariak joan zen astean Eusko Jaurlaritzan egin zuten Politika Orokorreko Eztataidan, eta beste hainbat herriren artean, Elgoibar ere aipatu zuen. Elgoibarko Udaletik jakinarazi dutenez, oraindik ez dago zehaztuta egungo anbulatorioa berrituko duten ala berria eraikiko duten beste kokaleku batean. "Egungo kokalekua eta berriak daude aztergai une honetan", adierazi dute Udaletik. Edonola ere, "berri oso pozgarria" dela esan du Elgoibarko alkate Ane Beitiak, eta hilabeteetako lanketaren emaitza dela jakitera eman du.

2023rako zergak eta tasak ez igotzea adostu du Elgoibarko Udaleko Osoko Bilkurak



Eguaztenean batu zen Elgoibarko Udaleko Osoko bilkura, eta beste zenbait gairen artean, datorren urterako zerga eta udal tasak ez igotzea adostu zuten, EAJ, PSE-EE eta EHBilduren aldeko botoekin. Podemos abstenitu egin zen.

EAJ eta PSE-EEK osatzen duten Udal Gobernuak datorren urterako zergak eta tasak izozteko proposamena egin zuen: "Herritarrak lagundu nahi ditugu. Ziurgabetasun handiko uneak bizitzen ari gara, bereziki ekonomikoki. Horrexegatik, prezioen igoerari zein krisi energetikoari aurre egiten laguntzea ahalbidetuko du zerga eta tasen izozteak, herritarrengan eragin ekonomikoa murriztuz". EH Bilduk aldeko botoa eman zion proposamenari, zergak izoztearen erabakia norabide onean doala argudiatuz, baina horrez gain, neurri zuzentzaileak hartu behar direla nabarmendu zuen. Progresibitatean sakontzeko

neurriak proposatu zituzten, gehiago duenak gehiago ordaintzeko. Era berean, errenta-maila eta familiaren tamaina kontuan hartuko duen hobari-taula bat ezartzea eta hainbat arlotan jardunbide egokiak sustatzeko neurriak (Krisi energetikoa eta aldaketa klimatikoa; Etxebizitzaren alokairuaren sustapena) hartzeko ere aipatu zuten. Podemosek abstenitzea erabaki zuen, nahiz eta esan zuten zergak izoztea albiste ona zela, baina ez zela nahikoa egungo egoeran. Egungo tasek familia asko egoera oso larrian jarri dituztela azaldu zuen, eta gogorarazi zuen esaterako, Elgoibarren ordaintzen dugun zabor tasa eskualdeko garestienetakoa dela. Evaristo Rodriguezek ere progresibitatea aipatu zuen neurri modura, baina gaineratu zuen Udalak ez duela aspektu horretan ezer aldatzeko asmorik erakutsi eta oposizioak egindako proposamen bat bera ere ez dutela onartu.

'Auzoko Familiak' egitasmoan izena emateko epea urriaren 3an zabalduko dute

Auzoko Familiak (lehen Hurbiltzen izena zeukan) egitasmoak azaroan hasiko du ikasturte berria, eta datorren astelehenean zabalduko dute izena emateko epea. *Auzoko Familiak* euskaratik urrun eta euskaratik gertu bizi diren familien elkarbizitzarako gune izateko sortu zuten, herriko kultura eta hizkuntza aniztasuna balorean jarri eta elkar ezagutza sustatzeko. Herriko familia guztiei irekita dago egitasmoa, eta familien artean adostutako ekintzak egingo dituzte, betiere dinamizatzailerik batek gidatuta. Bi modutara eman daiteke izena: egitasmoan parte hartzeko (talde motorearen barruan) edo egitasmoaren gaineko informazio jasotzeko (ekintza puntualetan parte hartzeko aukerarekin). Bi kasuetan izen-ematea Elgoibar Ikastolan, Herri Eskolan, HAZen, Udal



Ludotekan eta Elgoibarko Izarrako bulegoan egin daiteke. Baita Elgoibarko Izarraren www.elgoibarkoizarra.eus webgunean ere. Informazio gehiagorako: aisialdia@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626 / 747 487 058 (Gorane).

Sanlori eman diote estreinako Lila Saria

Lila Emakumeen Etxearen urteurren ospakizuna egin zuten joan zen astean, eta ekitaldi hori baliatu zuten estreinako Lila Sariak banatzeko. Aurtengo sariduna Sanlo eskubaloi taldea izan da. Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzen lagundu duen elkarte zein norbanakoei errekonozimendua egiteko sortu ditu Udalak Lila Sariak. Lilaren Mahaiko hiru kideak, Berdintasun Saileko teknikariak, Berdintasun Saileko arduradunak eta alkateak osatu dute epaimahaia eta beraiek erabaki dute nork merezi zuen aurtengo saria. Maialen Gurrutxaga zinegotziak azaldu zuen saria emateko herritarrek aurkeztutako bost hautagaitza jaso dituztela eta guztiek "merezi" bazuten ere saria, Sanlori ematea erabaki dutela. Arrazoen artean aipatu zuen Sanlok 30 urte baino gehiago daramatzala emakumeen kirola sustatzen, genero-estereotipoak deseraikitzen,



herriko neskontzako erreferente berriak aurkezten eta gizarte berdinzaleago baten aldeko pausoak ematen. 500 euroko txekoa jaso zuten Maialen Loiolak (Gaurve taldeko kapitaina), Juan Ramon Agirregomezkortak (zuzendaritzako kidea) eta Lorea Gabilondok (nesken eta eskubaloi eskola koordinatzailea eta Gaurveko entrenatzailea) Sanloren izenean.

Josu Lariz preso elgoibartarra izango dute gogoan Sarek gaur iluntzerako deitu duen elkarretaratzean

Sarek hileko azken barikuko elkarretaratzea egingo du gaur Kalegoen plazan, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde, eta bereziki, Josu Lariz Elgoibarko presoak izango dute

gogoan. Lariz Uruguain bizi da, eta gaurko ekitaldian salatuko dute ez diotela bere herrira itzultzen uzten. 20:00etan izango da elkarretaratzea.

Hiru zabor edukiontzi bete zituzten Baso Biziak taldekoak antolatutako ibai garbiketan

Baso Biziak plataformak garbiketa egun bateratua antolatu zuen joan zen zapatarako, eta inguruko hainbat herritan egin zituzten naturguneen garbiketak. Elgoibarren, Deba ibaia garbitzeko deia egin zuen taldeak. Giza Eskubideen parkean hasi eta Maltzaga alderako tartea garbitzeko asmoz elkartu ziren 30 bat lagun. Talde desberdinetan banatu ziren lanerako: taldeetako bat Giza Eskubideen parkean bertan sartu zen uretara, eta gainerakoak Andikano inguruan. Antolatzaileek esan dute gustura geratu zirela ekimenak eman zuenarekin. "Eguraldiak ez zuten gehiegi lagundu, baina hala ere jende berria batu zen taldera, eta lan handia egin genuen", esan dute antolatzaileek. Denetariko hondakinak



atera zituzten ibaitik, bereziki, ibai bazterretatik, eta hiru zabor edukiontzi bete zituzten. Lanik handiena, baina, zuhaitzetan kateatuta zeuden plastikoak kentzea izan zela adierazi dute, horrek denbora asko kendu zielako. Ibaia garbitzeaz gain, hainbat landare inbaditzaile ere identifikatu zituzten.

36ko gerran kanporatutako emakume eta umeak omendu dituzte Olasoko hilerrian



36ko Gerran matxinatuak Elgoibartik eta Mendarotik deserrira kondenatu zituzten emakume eta umeak omendu zituzten zapatuan Olasoko hilerrian. Ekitaldian izan ziren kanporatu haietako hiru: Karmele Gabilondo eta Sabin Argarate elgoibartarrak eta Miren Iriondo mendararra, bai eta kanporatu zituzten haietako zenbaiten ondorengoak ere.

1936ko irailaren 21ean sartu ziren matxinatuak Elgoibarren, eta zazpi hilabetez eutsi zieten gure mendietan Errepublikaren aldekoek. Tropa frankistak sartu aurretik, baina, herritar askok egin zuten ihes. Errepublikarren kontrolpeko lurretan aurrera egin zuten haietako asko gizonezkoak ziren. Emazteak eta seme-alabak lagata egin zuten aurrera, eta haien kontra gogor jazartu ziren matxinatuak gero.

Zapatuan banan-banan irakurri zituzten kanporatu zituztenen izen-abizenak. Ez ziren haiek izan, baina, omendu bakarrak. Patxi Iriondo Aranberri 1936an, erbestean, Elgoibarko alkate izendatu zutena eta memoria historikoaren alde hainbeste lan egindako Felix Etxeberria *Parapan* izan zituzten akorduan.

Patxi Iriondok alkate zela jasotako datuei esker dakigu gaur egun 36ko gerran elgoibartarrek jasan izan zituztenen berri, herriz herri ibili zelako Bizkaian kanporatutako elgoibartarren bila, eta laguntza premian zeudenei laguntzen. Felix Etxeberriak, berriz, eskuz esku lan egin zuen Elgoibar1936 taldekoekin. Hari esker lekutu dituzte zenbait hobi eta atera dituzte lurpetik gerran hildako miliziano eta gudariak, eta lotu dituzte edozenbat elkarriketa.

'Haurdunaldiko eta erditu ondorengo dolua ikusaraziz' erakusketa, Aita Agirre kultur kafean



Haur baten heriotza jasan duten familien argazkiekin eta testuekin osatu dute *Haurdunaldiko eta erditu ondorengo dolua ikusaraziz* erakusketa. Aita Agirre kultur kafean dago ikusgai gaurtik urriaren 9ra arteko epean. Taberna zabalik dagoen ordutegian egongo da ikusteko aukera.

Dolu perinatalaz jardungo dute urriaren 7an, Lilan

Dolu perinatalaren gaineko mahai-ingurua antolatu dute Esku Hutsik elkarteak eta Berdintasun Sailak urriaren 7rako Lilan, 18:30ean. Haur baten haurdunaldiko, erditzeko edo erditze osteko heriotzagatiko dolua bizi izan duten edo bizitzen ari diren familiei laguntzeko sortutako elkarteak da Esku Hutsik eta asmo horrekin antolatu dute mahai-ingurua bera ere.

Sei lagunek parte hartuko dute, tartean bi elgoibartarrek: Alba Mazo eta Iraia Silva, dolu prozesuan dauden amak. Haien ondoan izango dira Esku Hutsik elkarteko presidente Maria Gonzalez, Matia fundazioko psikologo Guiomar Agote, Basurtuko Unibertsitateko ospitaleko emagin Marisa Sagardoy eta Nerea Garaizar, Esku Hutsikeko argazkilaria eta dolu prozesuan dagoen ama. Mahai-ingurua ele bietan izango



da eta ez da izenik eman beharko bertaratzeko.

Haurrak zaintzeko zerbitzua eskainiko dute, baina erabili nahi dutenek eskaera egin beharko dute berdintasuna@elgoibar.eus helbidera idatzita. Astelehenera arteko epea dago horretarako.

12 eta 20 urte bitarteko gazteentzako Beldur Barik lehiaketa aurkeztuko dute gaur, Mendaron

Mendaroko Beldur Barik txapelketa aurkeztuko dute gaur, udaletxean, 18:00etan. 12 eta 20 urte bitarteko neska-mutilei zuzendutako lehiaketa da. Lehiaketaren helburua da emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dieten neska-mutileen adierazpenak aintzat hartzea, baloratzea eta bultzatzea. Lehiaketara aurkezten dituzten ikus-entzunezko lanek errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren

gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarreraren adierazgarri izan behar dute, eta kalitate teknikoaren eta artistikoaren ginetik mezua kalitatea baloratuko dute.

Lehiaketa Bizkai, Gipuzkoa eta Araba mailakoa da, baina aurten, herrian bertan ere sortuko du lehiaketa Mendaroko Udaleko Berdintasun Sailak eta herrian banatuko dituzte sariak, gazteak motibatze aldera. Gaur emango dituzte argibide gehiago.

Energia komunitateen gaineko hitzaldia antolatu du Karakate Bizirik plataformak urriaren 6rako

Energiaren arazoari irtenbide ekonomiko eta ekologikoa bilatu nahi diote Karakate Bizirik plataformakoek, eta horretarako, ari dira hitzaldi eta formazioak antolatzen. Urriaren 6rako, esate baterako, energia komunitateen gaineko hitzaldia lotu dute. Hitzaldia Kultur Etxeko hitzaldigelan izango da, 19:00etan hasita, eta bi hizlari gonbidatu dituzte: Goiener kooperatibako Oier Etxeberria eta Nestor Arana.

Gazteen Emantzipazio Plana parte-hartze prozesu bidez osatu nahi du Elgoibarko Udalak

Gazteen emantzipazio-beharren diagnosis egin zuen iaz Elgoibarko Udalak, Jaurlaritzak finantzatuta, eta hango ondorioetatik abiatuta Gazteen Emantzipazio Plana diseinatuko du orain lau urterako. Horretarako herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte. Parte hartzeko: <https://labur.eus/ElgoibarrenEmantzipatzekoPlana>. Kezkak argitzeko: 943 423 261 edo info@ikertalde.com.



Denboraldi berriko manta,
edredoi, nordiko eta
neguko ohe-maındireak
dendan!

Bisita gaitzazu!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Uzuri **ELGOIBAR - DEBA**
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359 www.uzurioptika.com

Nahi duzunean, ahal duzu.
Gainerako guztia aitzakiak dira
Prest zaude?



Betaurrekoen armazola eta lente graduatuak
89 eurotik aurrera

LIFE IS NOT SPECTATOR SPORT

Reebok markako produktuek ez dira erantsita. Baita ere, ez dira erantsita. Erantsita ez diren produktuek ez dira erantsita. Erantsita ez diren produktuek ez dira erantsita. Erantsita ez diren produktuek ez dira erantsita.

Aurrematrikulazio epea zabalik!

Irakasle eta metodologi berriak
iraila doan izango duzue metodologi berria probatzeko!
Etorri eta informa zaitez!

- Eskolako ingelesaren errefortzua
- Cambridgeko azterketak. LH, DBH eta helduak
- Talde txikiak

667 261 248

IKASGO
ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademialelgoibar@gmail.com

Denon ongizatea
hobetzeko **ticketa. BAI.**



TicketBAI, Gipuzkoa osoa batzen duen
tresna aurreratua eta solidarioa, etorkizuneko
erronkei aurrea hartzeko.

gipuzkoa.eus/ticketbai



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamentu Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es Futuro

“Nire ametsik onenetan ere ez zegoen Suitzako Menuhin nazioarteko akademian sartzea”



NEREA ARRIOLA

Biolin-jolea

✍️ Ainar Argoitia / 🎧 Jairo Berbel

Ume-umetan ekin zion biolina jotzeari Nerea Arriolak (Mendaro, 2002). Aita, Juan Arriola, izan zuen lehenengo biolin irakaslea Mendaroko Ameikutz musika eskolan, eta Musikenen goi mailako ikasketak eginda, Yehudi Menuhin biolin-jole ospetsuak sortutako nazioarteko akademiarako hartu berri dute Suitzan. Urrian hasiko ditu ikasketak han, eta ikasten jarraitzeko "aukera paregabea" izango duela sinetsita dago.

Egin daigun atzera begirako bat lehendabizi.

Mendaroko Ameikutz musika eskolan hasi nintzen biolina ikasten 4-5 urterekin, aitarekin. Eta ezer baino lehen, horixe aipatu nahi nuke: zorte handia dela gurea bezalako herrietan musika eskolak izatea. 11 urterekin, estreinakoz, Euskadiko Ikasleen Orkestrarako hartu ninduten eta Raffaella Acella irakaslearekin urte batzuk ikasi ondoren, Mendarotik kanpora hasi nuen ibilbidea. 16 urterekin Musikenen eman nuen izena, eta lau urteko goi mailako ikasketak egin ditut han. Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia da; sekulakoa da. Atzerritik jende asko etortzen da Musikenera, oso irakasle onak ditugulako hemen. Biolin-jole eta pertsona gisa asko ikasi dut Musikenen. Tatiana Samouil biolin-jolearekin egin ditut azkeneko bost urte hauek. Belgikar-errusiar bakarlari eta pedagogo ezaguna da Samouil eta Queen Elisabeth Music College eta Ambereseko Errege Kontsebatarioan ere irakasten du. Primerako irakaslea da Tatiana. Era berean, eta beste batzuen artean, Irini Gaitani piano irakaslea ere izan dut lagun. Plazer handia izan da maila horretako irakasleak izatea ondoan.

Munduko musika akademia onenetako batean hartu zaituzte orain. Kontaguzu.

Bai, Yehudi Menuhin giza-balio handiko musikariak, munduko biolin-jole onenetakoa izan zenak (1916, New York-1999, Berlin), eta Alberto Lysy Argentinako biolin-jole handiak (1935,

Buenos Aires- 2009, Suitza) sortutako akademian hartu naute, Suitzako Menuhin nazioarteko akademian. Akademia horrek astebeteko egonaldiak antolatzen ditu musikarientzako. *Rencontres Musicales* edo topaketa musikalak deitzen diote eta mundu osoko jendeak ematen du izena hara joateko. Ez dituzte izena emandako denak hartzen, baina. Hor sartu ahal izateko grabazio bat bidali behar izaten da curriculumarekin batera, eta aukeratzen dituzte gutxi batzuk haiek. Eta neuk ere eman nuen izena, hartuko ninduten itxaropen handirik gabe egia esan, baina hara non hartu egin nindutela. Punta-puntako biolin-joleak daude han irakasten: Renaud Capuçon, Oleg Kaskiv, Guillaume Chilleme, Gerard Causse eta Olga Sitkovetski, batzuk aipatzearen. Astebete egin nuen han, musikari horiekin ikasten.

Zer da zuretzat Suitzara joateko aukera hau?

Maila horretako musikariekin lan egin ahal izatea zirrargarria da. Campusa bera oso lasaia eta egokia da lan egiteko. Hala ere, gehien harritu ninduen bertako baloreak izan ziren: kultura guztiak baloratzen eta errespetatzen dituen filosofia, nahiz eta kultura horiek txikiak edo desberdinak izan. Sekula ahaztuko ez dudan esperientzia izan zen. Goizetan eskolaren bat izaten nuen edo bestela arratsaldeko eskolarako entsegatzen nuen, eta ondoren, ganbera-musika egiten genuen. Lagun talde bat batzen ginen, elkarrekin entsegatzen genuen, eta gero, pieza hori aurkezten genuen. Musikaren bueltan antolatzen genuen eguna, baina turismoa egiteko edo lagunekin irteteko tarteak ere izaten genituen. Egonaldi horretako azken egunean audioak antolatu zituzten, akademian sartzeko hautaprobak. Han egonda baneukan aurkezteko tentazioa, baina akordatzen naiz etxera deitu nuela gurasoei galdetzeko ea gai ikusten ninduten edo ea zer iruditzen zitzaien. Guztira, 30 bat

*"Motibatu egiten naute erronkek.
Badago teknikoki jotzeko oso zaila den
pieza bat jo nahiko nukeena ondo:
'The last Rose of Summer'"*

bekadun daude akademian musika ikasten, eta urtero pare bat berri hartzen dituzte. Gurasoekin hitz egin nuen eta animatu ninduten; behin han egonda saiatzeko esan zidaten, galtzekorik ez neukala-eta. Halaxe, beste askorekin batera, izena eman nuen nik ere, baina esperantzarik gabe, eta biharamunean bertan idatzi zidan irakasleak hartu egin nindutela esanez. Zoriontsu sentitu nintzen.

Dena ez da zorte kontua izango!

Ez, ez da. Lan handia egin dut, hori badaikit, baina zortea ere behar izaten da eta hori ere alde izan dut. Ez nuen espero egonaldi hura egiterik eta are gutxiago akademiarako hartzerik. Urriaren 4an hasiko dut han ikasturtea eta ikasketak hiru urtekoak izango dira, beti ere ondo moldatzen banaiz eta hango egitaraua gainditzen badut. Hiru urterako beka da eman didatena. Zer gehiago nahi dut ba nik? Munduko irakasle onenetarikoak izango ditut eta Suitzan emango ditut hiru urte. Nire ametsik onenetan ere ez zegoen halakorik.

Goi mailako musika ikasketak eginda, zer zegoen zure buruan Suitzako topaketa hartara joan aurretik?

Ikasten jarraitzea eta kontzertuak ematea. Banekien atzerrira jo beharko nuela eta egingo nituela probak han eta hemen, baina Menuhinen sartuko nintzenik ez behintzat. Menuhin nirekin batera ukrainiar bat eta suitzar bat sartu dira, eta beste bi ere hartu dituzte, baina ez dakit zeintzuk diren. Garbi daukat gogor ahalegindu beharko naizela eta gogorak izango direla hiru urte hauek, baina gogotsu nago, izugarri gustatzen zaidalako mundu hau. Zenbat eta gehiago jo, orduan eta errazago jotzen dugu eta orduan eta proiektu gehiagotan parte hartzeko aukera izaten dugu, eta, jakina, engantxatu egiten du horrek. Jende asko ezagutu dut gainera biolinari esker, kultura ezberdin askotakoak, eta hori oso aberasgarria da.

Zailtasun handiko piezak jotzea gustatzen zitzazula esan zenigun 13 urte zenituela eman zenigun elkarrizketan. Orain ere bai?

Bai, hori ez da aldatu. Motibatu egiten naute eronkek. Badago teknikoki jotzeko oso zaila den pieza bat [The last Rose of Summer] jo nahiko



"Hemen, kultura ez da baloratzen edo ez behar beste. Kulturari balioa eman behar zaio, ikusgarri egin eta eskura jarri jendeari"

nukeena ondo, baina, edonola ere, zailtasunen artean ere, zailtasun askotarikoak daude. Badaude teknikoki jotzeko zailak diren piezak, adierazteko zailak direnak, memoria ariketa handia eskatzen dutenak... Askotan zailagoa da melodia simple bat polito edo esan nahi duen hori transmititz jotzea, teknikoki zaila den pieza bat jotzea baino. Alor guztietan moldatu behar da hemen: izan behar da melodikoa, birtuoso eta

izan behar da garai ezberdinetako musika jo eta zerbait transmititzeko gai.

Baina beti moldatuko da bat hobeto gauza batean beste batean baino, ala? Zeintzuk dira zure dohaiaik? Zein konpositore duzu gustukuen?

Konpositore asko gustatzen zaizkit, baina bat nabarmentzekotan Tchaikovsky esango nuke. Gero, beharbada bitxia ere baden arren, Serguei Prokofiev ere asko gustatzen zait. Dohai bat aipatzekotan konstantzia aipatuko nuke beharbada. Ez dut uste osasungarria denik egunean zortzi edo hamar orduz ikastea. Nik egunean bost bat orduz ikasten dut, izan ere sinistuta nago hobe dela entsegu-orduak gutxiago izatea eta denbora tarte horretan kontzentrazio-mailari gorenean eustea. Gustatzen zait lagunekin irteeta eta nire adineko bati dagozkion beste gauzak egitea. Horren harira aipatu nahi nuke ahizpak asko lagundu didala. Berak ere biolina jotzen du, kontzertu guztietara etortzen da eta etxean askotan adosten ditugu entsegu-orduak, bai eta entsegu orduetako atsedeen-tarteak ere. Eguneko plana antzekoa izatea lagungarri da halakotan. 18 urte dauzka Maddik, eta Musikenen sartu da aurten.

Momentu gogoangarriak izango zen zure ibilbidean. Adibidez?

Momentu on asko bizi izan ditut atzerrian. San Petersburgoko jaialdian parte hartu nuenekoa adibidez ez dut sekula ahaztuko. Han jotzea esperientzia aberasgarria zen niretzat, musika, eta kultura oro har, izugarri baloratzen dituztelako. Bitxia izan zen hainbeste gazte ikustea aretoetan musikaz gozatzen. Tatianarekin hainbat masterclass jaso nituen han eta hiria ezagutzeko aukera ere izan nuen. Zoragarria izan zen. Bestalde, Musikeneko lagunekin quartetotan eta hirukotetan jotzea ere oso esperientzia ona izan da. Lehiaketa batzuetan ere parte hartu dut emaitza ezberdinak lortuz. Joan izan naiz Poloniara, Belgikara... Bruselan, IV. Triomphe de l'Art nazioarteko musika lehiaketa irabazi nuen esaterako, 15 eta 20 urte arteko biolin-joleen saillean. Esperientzia onenen artean daukat.

Zertan zara orain atzo baino hobea?

Nerbioak hobeto kontrolatzen ditut orain.

Estu hasten zarenean edo kostata ari zarenean jotzen, zaila da urduritasuna kontrolatzea, baina urteekin ikasten da hori ere. Oso garrantzitsua da jende aurrean jotzeari ez uztea, tentsio hori ez galtzeko. Jende aurrean jotzea beti da lagungarri musikari gisa hazteko.

Musikak zer eman dizu?

Dena. Bolina jotzeak momentu zailak gainditzeko erremintak eman dizkit eta erakutsi dit ezer ez dagoela lanik egin gabe. Ezagutu ditut leku berriak eta kultura ezberdinak, ikasi dut konstantea eta saiatiua izaten... Asko eskertzen diet gurasoei mundu honetan sartzeko bidea eman izana. Umetan ez pentsa beti gustura entsegatzen nuenik, baina gurasoek irakatsi zidaten ahaleginak beti dakarrela emaitza, eta orain, erabat harrapatuta nauka egiten dudanak.

Kulturaren balioaz hitz egin duzu. Baloratzen al dugu hemen daukaguna?

Ez da baloratzen edo ez behar beste. Nire ustez, kulturari balioa eman behar zaio. Batetik, Euskal Herrian badaukagu gure musika, eta aberastasun hori zaintzea eta sustatzea ezinbestekoa da. Bestetik, musika klasikoa elitizatzen hartzen da eta mundu horretan ari garenok zerbait egin beharko genuke hori aldatzeko, agian ikusgarriago egin eta jendearen eskura jarri. Musika klasikoko kontzertuetara apenas gerturatzen den gazterik. Nik eraman izan ditut lagunak eta gustatu izan zaie, baina zer den jakiteko, joan egin behar da lehenengo. Aukera eman behar zaio musika klasikoari, ederra delako. Musika ikasketak askorentzat ezezagunak dira. Zenbat urtez ikasi behar den, non eta zertarako. Horregatik, noizbait esan izan dudanean musika ikasten ari naizela, beste zer gehiago ikasten ari naizen galdetu izan didate. Uste dut normalizatu egin beharko genituzkeela musika ikasketak, beldurrik gabe gerturatu eta egin ditzan gustuko dituenak.

Non ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

Ez dakit. Musika munduan aukera asko daude (orquestra, ganbara musika, irakaskuntza...) eta garbi daukat musikari lotutako zerbait egitea gustatuko lidaitzakela profesionalki.

Debabarrenean, hitzetatik ekintzara



Azaroaren 18tik abenduaren 2ra arte egingo da Euskaraldia eta Debabarreneko herri-batzordeak ekimenerako prestatzen hasi dira. *Hitzzez ekiteko garaia* da edizio honetako leloa eta, horregatik, hitzetatik ekintzara pasatu dira eskualdean.

Euskaraldiaren hirugarren edizio honetan ere *ahobizi / belarriprest* dinamika erabiliko da eta, norbanakoez gain, entitateek ere hartuko dute parte ariguneak osatuz; hau da, entitateetan (denda, taberna, talde, elkarte, erakunde, zerbitzu, enpresa...) euskaraz lasai aritzeko identifikatzen diren guneak.

Aurtengo helburu nagusia ariketaren eragina handitzea da. Horrela, alde batetik,

norbanakoez eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak egitea espero da; eta bestetik, *ahobizi, belarriprest* eta *arigune* gehiago izatea.

Parte hartu nahi duten entitateek maiatzetik dute zabalik izena emateko epea eta norbanakoena irailaren 28an hasi zen. Izena emateko, aurreko edizioaren batean parte hartu zuten herritarrek

EUSKARALDIA

HITZETZ EKITEKO GARAIA
2022



eta entitateek mezu elektronikoa bat jasoko dute izen-ematea berresteko, hala nahi badute behintzat, edo datuak aldatzeko. Parte-hartzaile berriek, ostera, *euskaraldia.eus* webgunearen bitartez eman dezakete izena.

Azaroan hasiko den ariketari begira berotzen joateko, Euskaraldiaren gune ibiltaria herriz-herri ibiliko da informazioa helarazten eta

jarduera ezberdinak egiten. Horrela, urriaren 20an Ermuan egongo da, 26an Soraluzen, azaroaren 10ean Elgoibarren eta 12an Eibarren.

Gune ibiltariak gain, zenbait ekintza egingo dira Euskaraldia hasi aurretik. Batetik, #HitzezEkiteko ekimenak egingo dira Euskal Herriko herrietan eta, horren bitartez, herritarrek beraien lorpenak eta helburuak bistaratu dituzte paneletan. Bestetik, formazio eskaintza, aholku-saioak eta bestelako tresnak eskainiko zaizkie *ahobiziei*, *belarriprestei* eta *ariguneak* osatzen dituzten kideei. Eta azkenik, hizkuntza ohiturak eremu digitalean ere jokatzeko direlako, *Zapia!* izeneko plaza digitala sortuko dute Instagramen eta Twitterren.

Nolako izan da zure esperientzia Euskaraldian?

JON ANDER URAIN

Euskaraldiaren dinamizatzailea - Deba



Euskaraldiaren aurreko edizioetan, *ahobizi* izan naiz.

Aurten, ordea, *ahobizi* izateaz gain, Debako dinamizatzaile lanetan ere banabil. Oraintsu, irailaren amaieran, herri batzordea jarri dugu martxan eta abiada hartzen goaz.

Entitateek *ariguneak* sortzeko ahalegina egingo dugu urriaren

erdialdera arte eta, horrez gain, hemendik aurrera, norbanakoen izen emateari helduko diogu. 2022ko edizio honetan ere, tabernen, saltokien, norbanakoen... hizkuntza ohituretan eragiten saiatuko gara. Hala ere, lagun arteko hizkuntza ohitura aldatetetan jarriko dugu arreta. Horregatik, Euskaraldiaren ariketa ondo egiteko, *ahobizi* edo *belarriprest* norbanakoen rolen aukeraketa egokiak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, konpromisoak eta jokaerak gaitasunak berak baino garrantzi handiagoa dutela argi utziz.

JOSU LEUNDA

Teknikerreko Euskaraldiko arduraduna - Eibar



2018an gogotsu ekin genion

Euskaraldiaren lehen edizioari eta apiriletik hasi ginen

Euskaraldiaren dinamikan pixkanaka murgiltzen.

Azkenik, Euskaraldiari zegozkion 11 egunetan,

guztira 90 lankide inguruk (60 *ahobizi* eta 30 *belarriprest*),

paparrean txapak jarri eta

euskaraz aritzeko konpromisoa hartu genuen, bai eta neurri handi batean bete ere. Euskaraldiaren bigarren edizioak pandemia bete-betean harrapatu gintuen, eta egoera honek ez zion batere lagundu dinamikari. Batetik, lankideon arteko aurrez aurreko harremanak asko mugatu zituen; eta bestetik, lankideen parte hartzea lortzea ere zailagoa egin zitzaigun, giroa erabat hoztuta baitzegoen. Gainera, *ariguneak* osatzea tokatu zitzaigun eta 11 *arigune* osatu genituen.

IXAKA EGURBIDE

IMH Campus-eko zuzendaria - Elgoibar



Euskaraldia ekintza gakoa izan

da gure euskara planaren jarraipenari indarra

emateko. Ariketa kolektiboa den heinean,

euskaldun aktiboa izatearen kontzientzia

areagotu eta hainbat joera apurtzeko balio izan digu.

Beste hainbat enpresa eta

herritarrekin batera Euskaraldia "praktikatzen" dugula ikusteak babes-sentimendua eta konfiantza eman digu Euskaraldiak dirauen bitartean elkarrizketa elebidunei eusteko, eta zenbait kasutan Euskaraldiaren ondoren ere bai.

Ziur gaude aurtengo Euskaraldiak gure campusa osatzen duten kideen hizkuntza ohituren berriro eragin eta euskararen erabileran beste bultzada bat ematen lagunduko digu.

DAVID GOMEZ

Dendaria - Ermua



Ermuko Euskaltzaleen Sarea

eta Ermuan Bagara ekimena sortu zirenetik, modu

aktiboan jardun dut euskara bultzatzeko helburua duten

ekintzetan. Horren harira, Euskaraldiko bi edizioetan

ere parte hartu izan dut, *ahobizi* rolean, eta talde

eragilean hainbat lan burutu ditut,

tartean egitasmoari buruzko informazioa herritarrei zabaldu eta izenak jaso, kalean jarritako informazio puntuetan. Egindako lan horri esker, euskaraz aritzen den jende asko ezagutu dut, eta ondorioz, gero eta gehiagorekin hitz egiten dut euskaraz nik neuk ere. Horrez gain, gure denda *arigunea* izan zen azken edizioan (*arigune* bezala izena eman zuen lehen entitatea Ermuan, hain zuzen ere), eta ordutik nabaritu dut gaztelaniaz hitz egiten ziguten bezero askok euskaraz hitz egiten digutela orain, aldaketa egin dutela.

ROBER RODRIGUEZ

Euskara ikasle ohia - Mallabia



Euskaraldiko bi edizioetan parte hartu izan dut, betidanik izan dudalako euskara bultzatzeko nahia. *Belarriprest* rolean aritu izan naiz eta, lehenengo edizioari esker, laneko hizkuntza ohiturak aldatu nituen, eta ordutik lankide batzuekin euskaraz hitz egiten dut. Ordutik ere, naturaltasun osoz nahasten ditugu euskara eta gaztelania kuadrillan. Ezezagunekin, aldiz, onartu beharra daukat erosoagoa egiten zaidala gaztelaniaz hitz egitea, oso lotsatia naizelako eta uste dudalako hobeto adierazi ahal izango dudala esan nahi dudana. Puntu horretan gaudenontzat, mugan, ulertu bai baina hitz egiten ausartzen ez garenontzat, Euskaraldia oso mesedegarria da, konfiantza hartzen laguntzen digulako. Dena den, euskararekin tematzea da kontua eta, ez badago benetako interesa, egindako guztia alferrik da.

LURDES RODRIGUEZ

Administraria - Mendaro



Ariketa interesgarria iruditu izan zait beti Euskaraldia eta aurten ere badut parte hartzeko asmoa. Orain artean, baina, *ahobizi* izan naiz, eta oraingoan *belarriprest* rola aukeratuko dudala uste dut. Lehen hitza euskaraz egiteko joera hori badut, baina eginda ere, ez zidaten nik nahi bestek egiten euskaraz. Euskara gehiago entzun nahi dut, eta pentsatu dut beharbada paparrean *belarriprest* txapa jarrita gehiagok egingo didatela. Ez dakit, baina probatuko dut. Iruditzen zait oraingoan jende gehiagok parte hartuko duela eta badut ilusioa. Aurrekoa ez zen nik nahi bezain ikusgarria izan, egia esan. Ez nuen nahi besteko mugimendua sumatu nire bueltan. Uste dut pandemiak min handia egin ziola ariketari berari, baina orain beste testuinguru batean gaude eta emaitza beste bat izango dela sinetsita nago.

AINHOA AIZPURUA

Haur Hezkuntzako irakaslea - Mutriku



Euskaraldiko lehenengo urtea Bilboko giroan bizi izan nuen; unibertsitatean nenbilen garaian, hain zuzen ere. Hizkuntzari dagokionez, ezohiko giroa niretzat; ekimen edo ariketa sozial hark sorrarazi zidan sentsazioa, aldiz, benetan arraroa. Euskararen arnasmune (oso herri euskaldun) batetik hara joan eta... bai, nik bizi izan nuen giroari dagokionez behintzat, soinean generaman *belarriprest* edo *ahobizi* ikurra etiketa edo posturoa hutsa zela iruditu zitzaidan. Mutrikuarra izanik, eta oso euskaldun giroan bizi izanik, egoera hark erabat amorratu ninduen, euskaldun izatea ez baita Euskaraldian pin bat jartzera mugatzen. Zorionez Mutriku bizitzeak euskaraz bizitzea ahalbidetzen dit eta aitortu beharra daukat askotan ez naizela ohartzen esku artean dugun altxorraz. Neurri batean behintzat, Euskaraldiak horretaz gehiago jabetzea eta garenaz harro sentiaraztea eragin dit.

ESTHER CRUZ

HEFA-Ieko Practicum eta GRAL Dekanordea - Sorraluze



Hasieratik parte hartu dut Euskaraldian, *belarriprest* rolean. Esan dezaket Euskaraldiak asko laguntzen duela hizkuntza ohiturak aldatzen. Adibidez, norbaitekin beti gaztelaniaz komunikatu bazara, oso zaila da ohitura aldatzea. Aldiz, Euskaraldiari esker, kuadrillako lagun batekin, bakarrik gaudenean euskaraz egiten dugu. Lantokian, lankideen arteko harreman formalak euskaraz izan arren, leku informaletan, kafe-makinaren bueltan, adibidez, gaztelaniara jotzen dugu; Euskaraldia datorrenean, berriz, euskaraz jarduten gara. Beraz, Euskaraldiak eragin handia dauka. Anekdotak modura, familian (familia osoaren etxeko hizkuntza gaztelania da) beti bizi izan gara gaztelaniaz, nahiz eta Euskaralditik semeekin euskaraz egiten ahalegindu. Bada, orain gutxi, semeak Maltatik deitu zidan eta hango lagunak euskaraz bizi zirenez, lehen aldiz berak ere euskaraz egin zidan. Halakoetan ikusten da zein inportanteak diren hizkuntza ohiturak.



AMATASUNETIK GOGOETA EGITEKO TALDEA SORTU DUTE ELGOIBARREN

✍️ Aina Argoitia / 🗣️ Asier Orbea

Gure bigarren hauraren etorrerak krakateko asko eragin zizkidan. Lehenengo semeaz erditu nintzenez neure buruari sinistarazi nion egin nahi nituen gauza guztiak egin ahal izango nituela. Lehenengo haurrarekin oraindik izan nintekeen 'ama perfektua', baina bigarrenarekin iritsi zen zen zaplastekoa. Katarsi hartan, liburu feministak irakurtzen hasi nintzen konplutsiboki, baina jabetu nintzen beste zerbait behar nuela: behar nuela sare bat irakurritakoa konpartitzeko eta behar nuela beste batzuekin elkartu ama

Askotarikoak dira amatasunari lotutako esperientziak eta bizipenak, nork bereak ditu, eta denek dute gozotik eta garratzetik, aukeratutakoa denean ere sistemak -gizarteak- ez duelako ama izatea errazten. Eta horri guztiari buruz hitz egiteko elkartzeko beharra sentitu du emakume talde batek Elgoibarren. Amatasun Feministen Taldea sortu dute, eta taldean topatu dituzte kontsolamendua, babesa eta iraultzarako espazioa zein konplizeak. Hogeitabat lagun dira gaur, baina zabalik dute atea. Bihar, 'M ama*eme*ume' liburuaren aurkezpen-ekitaldira batuko dira eurek ere, gaiaz jarduteko aukera ona izango delakoan. **10:00etatik 14:00ak bitartean izango da, Lila Emakumeen Etxean.**

izateko eredu berriak eraikitzeko". Ainhoa Mendibil Artetxeren hitzak dira. Bigarren semeak bi-hiru hilabete zituela sentitu zuen Mendibilek amatasunetik sistema heteropatriarkala deseraiki beharra, orduan sentitu zuelako sekula ez bezain gordin noraeza. "Nahiko garbi" ikusten zuen egin nahi zuena, baina erreferentziak falta zituen "ama beste modu batean izateko".

Eta etsi-etsian, Amatasun Feministak Taldearen hazia izango zena zabaldu zuen whatsappez, Berazeta ingurura egindako pasia batean. Mezuan aipatzen zuen ez zegoela

ama izan beharrik taldera batzeko, baina bai emakumea, eta amatasunaz hitz egiteko izango zela. "Izen-abizenez sinatuta bidali nuen mezua eta uste dut desesperatuta hitza ere aipatu nuela; hitza ez bada, tonua bai behintzat". Eta bi asteren barruan, 20 bat ama batu zitzaizkion. "Kakatan ez nago bakarrik' pentsatu nuen".

Talde-dinamika zehaztea etorri zen gero. Kode etiko bat adostu zuten. Taldean esandakoak taldean geldituko zirela hitzartu zuten, ez zutela aktetan izenik jasoko. Bakoitzak bere estiloa daukala ere jaso zuten kode etikoan, eta ez ziotela horrenbestez inori gomendiorik emango, aurrez beste horrek eskatu ezean behintzat. Espreski jaso zuten, era berean, ez zutela talde moduan elkarrizketarik emango, ez daudelako bi amatasun berdinak, ezta birritan ama den andre berarentzat ere, eta beraz, errespetatuko zituztela amatasuna ulertzeko modu guztiak eta ez zutela inor epaituko bere izateko eta egiteko moduengatik. Eta gogoetarako helduleku egokia izan zitekeelakoan, lehen irakurgai proposatu zien Mendibilek taldekideei: Adrienne Richen *Emakumeengandik jaioa*. "Kolpetik bota zidaten atzera lehenengo bileran -dio barrez-. 'Ainhoa, amak gara, ez daukagu astirik halako irakurgaietarako' esan zidaten, arrazoi osoz". "Gainera, liburu horiek oso teorikoak dira. Geuretik jardun nahi genuen, bizipenetatik", gehitu du Amaia Jauregi Barrutiak.

Pandemia betean egin zuten lehen batzar hura, on-line, eta gerora egin dituzte beste saio batzuk. Hasieratik izan dute jende gehiago batzeko gogoia, baina, eta horregatik agertu dira elkarrizketa emateko prest ere. "Batzueta ez dugu ondo asmatzen zer lortu nahi dugun azaltzea. Aurrekoan lagun bati amatasun feminista kontzeptua aipatu nion eta esan zidan berari amatasunak nahikoa burukomin ematen zizkiola bere buruari gehiago exijitzen hasteko. Justu kontrakoa da talde honekin lortu nahi duguna: geure buruei eta ingurukoei gutxiago exijitzea. Aurrerantzean, eguenetan bilduko dira, iluntzetan, "amentzako ordu txarrenean", poteoan. Beren buruak ere zaintzeko konpromisoa hartu dute, eurentzat ere denbora hartzekoa. Hori ere gertatzen delako. "Lanera joateko -produzitzeko-, ez bada, kosta egiten zait norbaiti umeak izateko eskatzea", dio Jauregik.

AUTOEXIJENTZIAK, KULPAK

King Kong teoria aipatu du horren harira eta

Amatasuna ulertzeko modu guztiak errespetatuko dituztela jaso dute taldearen kode etikoan eta ez dutela inor epaituko bere izateko eta egiteko moduengatik

azaleratu patriarkatuaren tripak: inosatutako genero rolak eta tradizioz emakumeari egokitu zaizkion eginkizunak, eta horri lotuta, emakumeen autoexijentzia-maila; dena ondo egin behar hori. "Guztiari eutsi behar diogula erakutsi digute: umeari emanda bizi behar dugu, erditu eta gutxira lanera itzultzen garenean %100 egon behar dugu, berdin etxean eta... Denera heldu nahi hori geuk ere exijitzen diogu geure buruei askotan. Eta kontziliazioa ez da existitzen, ezta baldintza onenetan ere", dio. Ez dago adibide beharrik, baina soka luzea aipatu dute.

Aurrera egin dela ez dute zalantzan jartzen, baina bidean gauza batzuk galdu izanaren errezeloa dute. "Lehen emakumearen lana ziren umeen eta etxearen zaintza, ez zitzaien aitortzen, ez eta ordaintzen ere, baina bazuten behintzat tribu bat, bazituzten beste emakume asko zeregin berean ondoan, laguntzeko prest. Orain, hori ez dago", dio Mendibilek. Sistemak amatasuna gero eta eremu pribatuagoan bizitzera bultzatzen dituela uste dute; etxea gero eta gehiago pribatizatu, familiaren kontzeptua gero eta gehiago idealizatu, orduan eta bakartuago dagoela ama. "Zuk aukeratu duzu ama izatea eta orain zure arazoa da. Eta baldin badaukazu aittitta edo amamaren bat inguruan laguntzeko, gaitzerdi, baina bestela gelditzen gara bakarrik. Amatasuna idealizatzeak dakarren krakatekoa bakarrik bizi dugu".

Bakardadea eta zokoratzea. Behin eta berriz errepikatzen diren kontuak dira amatasun taldeetan. Amatasuna bakardadean bizitze horren ondorioak ere aipatu dituzte. Isiltzen dituzte amek kontu batzuk, "ezinbestean", erakusten dute momentuan direna ez beste irudi bat, haiengandik espero dena, eta sinestera ere iristen dira batzueta proiektatzen dute emakume ahalguztidunaren irudia. "Trabatzen gara deseraiki nahi dugunean eta ez gara ohartzen sistema betikotzen ari garela



uneoro". Adibidea jarri du Mendibilek: "Aspertuta nengoen kalera leher eginda irten eta zer moduz lo egin nuen galderari erantzuten. Ez nuela lorik egin esaten banuen, hasten zitzaizkidan esaten hori lehen ere hala zela eta egiten zutela honela edo horrela. Eta ikasi nuen 'oso ondo' erantzuten, aukerarik izan ez zezaten eurek erantzuteko".

FEMINISMOA ETA AMATASUNA

Kontzientzia feminista dute biek eta liburuak-eta irakurri zaleak dira, baina amatasuna ez dute beti gozo bizi izan feminista gisa. *M ama*eme*ume** liburuko azpimarra bat ekarri dugu solasaldira: "Amak hostoak udazkenean legez erortzen dira mugimendu feministatik", dio ama batek. Baietz dio Jauregik, ama izatea eta feminista izatea "bi gauza kontrajarri balira bezala" bizi izan dituela. "Militante feministak irudikatzen nituen esanez 'zu sartu zara horretan!'. Eta sentitu dut neuk neure baitarako ere hori: ni nintzen, eta orain, beste bat jarri dut nire aurretik". Deseroso sentitu zen Mendibil ere, ama izan berritan: "Ama ez diren lagun feministak baditut eta ama izan berritan bereziki, min ematen zidan ikusteak non ikusten ninduten, baina denborarekin ulertu dut dena. 'Kontuz' esaten ari zitzaizkidan. Lagun lesbianek zein heteronormatiboa naizen ikustarazteak azkurea eragiten dit, baina eskertzen diet. Historian duela gutxira arte emakumeek ez dute aukeraterik ere izan amatasunaren inguruan. Feminismoak borrokatu behar izan zituen zapalkuntzen artean amatasuna zegoen eta horregatik ez da harrizkeoa amatasunari uko egin izana, patriarkatuaren tresna bat delakoan". Halarik ere, garbi dute

Sistemak amatasuna gero eta eremu pribatuagoan bizitzera bultzatzen dituela sinetsita daude, baina aldi berean, uste dute amatasunetik familia patriarkala deseraikitzeo aukera handia dagoela

amatasuna eta feminismoa "bateragarriak" direla, eta amatasuna feminismoz zeharkatzeko beharra ikusten dute. Eta baliatu dute aukera azaroaren 11 eta 12rako Emagin Elkarteak antolatu dituen jardunaldien berri emateko. (Ez) *Amatasunak ikuspegi feministatik* izenburupean egingo dira, Donostiako Tabakaleran.

Kontrol heteropatriarkala iraultzeaz jardungo dira Donostian, eta ahalegin horretan ari dira Elgoibarko Amatasun Feministak Taldean ere. Zaintzen harira, garbi dute: "Irtentz bidea ez da zaintzei uko egitea, baizik eta banaketa bidezkoagoa bultzatzea". Eta ildo horretan beharrezko ikusten dute familia-ereduaz gogoeta egitea, bai eta zaintzak birpentsantzea ere. Eta tentuz ari dira hizketan ez luketelako inor mintzerik nahi. Korapilatsua da gaia, emozionalitate handikoa, eta behin baino gehiagotan errepikatu dute euren asmoa ez dela inor epaitzea. "Gauza batzuk zalantzan jarri nahi ditugu, eta ikusi ea zer gertatzen den".

"Komunitatean dago gakoak, hor ez dago zalantzarik", esan du Mendibilek. Zaintza-sareak sortu beharra ezinbesteko ikusten dute, eta ez

dira ari horrenbeste hartzaindegiak edo antzeko zerbitzuak sortzearekin, hori ere baden arren. "Etxe askotatik abiatzen gara guraso bat edo beste goizero bi-hiru umerekin eskolara eta bide berea egiten dute paraleloan beste gurasoek euren umeekin. Giza ergelkeriaren adibide bat da".

Bizitzak erdigunean jarri behar direla errepikatzen dute behin eta berriz, datozen belaunaldiari bizitzeko aukera duinak eman behar zaizkiela. Gauza asko dira esan nahiko liuzketenak, baina bitan jarri dute fokua. Zaintzaileak zaindu behar dira "ikuspegi kolektibo batetik" eta adinekoei nahiz umei lotutako gaiak besteak bezain politikoak egin. "Ez dut heldukeriaz kontzientziarik hartu bi izaki txikiren begietatik begira jarri naizen arte munduari. Umeak leku guztietatik botatzen ditugu eta ama garenean leku guztietatik erretiratu beste aukerarik ez dugu sentitzen. Ume jaioberria motxilan hartuta joan nintekeen bertso-saio batera, posible zitzaidan neuri ere. Gero hartu nuen erabaki kontziente bat errebeliatik joatekoa hain erraza gertatzen ez zitzaidan arren: nire eta umearen eskubidea zen joatea. 'Zergatik egiten zaizue jasangaitza ume baten irrintzia eta ez gizon horren eztula?' pentsatzen zuen.

AMATASUNETIK IRAULTZA

Bota nahi dituzte hesiak. Izan direnengatik dira gaur libreago eta topatu dituzte ate batzuk zabalik, lan mundurakoa, esaterako. Eman die burukominik, hala ere, lanak, ama izan ondorenean. "Itzuli behar zara eta itzuli behar

zara lehengo erritmoan, eta ezin da. Arazoa ez da, baina, amatasuna; arazoa da lana, kapitala, jartzen dugula erdigunean, bizitza beharrean". Beren belaunaldiak egin dezakeen ekarpenik handiena zein den galderari beste galdera batekin erantzun dio Jauregik: "Eta probatuko bagenu ama perfektua ez izaten?". Horretarako, garbi dute kanpora begiratzea bezain garrantzitsua dela barrura begiratzea. "Aitak aita izaten hasi dira eta enamoratu dira denak haietaz. Super aitak dauzkagu eta sekula onak izatera iritsiko ez diren amak". Ardura mentala, baina, oraindik ere, amen gain erortzen da: "Eskola orduz kanpoko ekintzak, umeak urtebetetzetarako zer opari nahi duen zehaztea etxekoei eta denak gustura uztea, bihar-etzirako haurrek arroparik baduten ikustea... eta aitei lanak ematea ere bai. Gure arduraren langile bat bagenu bezala da", esan du Mendibilek. Baina txanponaren beste aldea ere badago "Aurrea hartzen dugu ardurak hartzen, gauzak 'ondo' egitearen izenean askotan. Besteek ardurak hartzea nahi badugu, guk laga egin behar diogu hartzeari, eta prest egon, noski, bestearen egiteko modua onartzeko. Ama perfektuak izateari laga behar diogu. Gorroto ditugu ama perfektuak, baina, aldi berean, denok ari gara hori izan nahian". Gauza bat dute argi: amatasuna dutela orain "mundua eraldatzeko lekuri egokiena". Diote egunero ari direla erabakiak hartzen, "gutziz pertsonalak iruditzen zaizkigun eta guztiz politikoak diren erabakiak". "Amatasuna da orain nire militantzia. Eta inoiz izan dudana militantiarik eraginkorrena da", azpimarratu du Mendibilek.

ERIKA LAGOMA ETA ESTITXU FERNANDEZ

Emakume guztiok, ama izan ala ez, askatu beharreko korapiloa da, oraindik ere, amatasunarena. Emakume guztiok bizi dugun presioa da. Exijentziak betetik dago emakumeon bizitza, eta zer esanik ez amena. Denok daukagu buruan ama onaren ideia, eta hori deseraiki behar dugu, hasteko". Ainara Gorostitzu idazle eta kazetariaren berbak dira, June Fernandez kazetariak *M ama*eme*ume** liburuko hitzaurreako bildutakoak. Feminismotik eta amatasunetik pentsatu eta idatzi dute *M ama*eme*ume** Estitxu Fernandezek eta Erika Lagomak, amatasun bakar bat ez dagoela erakusteko, gaiaz pentsarazteko, eta bihar,



hilak 1, 10:00etatik 14:00etara, Elgoibarren izango dira liburuaz hitz egiteko. Aurkezpenaren ostean, eurekin solasteko aukera izango. Ez da izenik eman behar parte hartzeko.

'Desde Extremadura al euskera' hitzaldia emango du Jon Maiak eguaztenean




Jon Maia Extremaduratik Euskal Herrira etorritako familia batek hizkuntzaren, nortasunaren eta munduan izan behar duen lekuaren inguruko prozesuaren berri emango du datorren eguaztenean, bere bizipen bitartez. Aita Agirreko areto nagusia izango da hitzaldia, gaztelaniaz. Elgoibarko Euskaraldia Taldeak antolatu du saioa, erdaldunak euskarara gerturatzeko helburuarekin. Jon Maia bertsolaria da, baina beste kultur disziplina batzuetan ere badihardu: literaturan, musikan edota

dokumentalen munduan, adibidez. Gaur egun *Kantu bat gara* izeneko liburu-diskoan oinarritutako bere azken proiektuarekin dabil hara eta hona.

Zabalik dago 'Tertuliak' programan izena emateko epea

Tertuliak programa jarri dute martxan aurten ere Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, AEK euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak elkarlanean, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. *Tertuliak* programa urrian hasi eta ekainera arte izango da, eta programaren oinarrian astero izango

den ordubeteko tertulia-saioa dago. Lauzpabost laguneko taldeak osatu eta talde bakoitzean euskaraz ondo dakien lagun bat egongo da, taldea dinamizatzeko. Iaz, adibidez, 37 lagunek parte hartu zuten, zazpi taldetan banatuta. Interesatuak urriaren 14ra arte dute izena emateko aukera.



Antton Telleriak 'Nekatutak' bakarrizketa emango du Mendaron hilaren 8an

Antton Telleria telebista aurkezlea eta umoregilea Mendaron izango da urriaren 8an, *Nekatutak* izeneko ikuskizunarekin. San Agustin kulturgunean emango du bakarrizketa, 19:00etan. Sarrera doan izango da, baina gonbidapena jaso beharko da Morroskillo dendan.

Ikuskizunean, zuzentasunaren mugak esploratzen saiatzen da Telleria. Barre eginarazteko helburu bakar eta sakratuarekin, "delikatuak" izan daitezkeen zenbait kolektibo aipatuko ditu.

Urriaren 6an amaituko da egutegirako argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea

Egutegirako irudiak argazki lehiaketa bidez aukeratuko dituzte aurten ere Elgoibarko Udalak eta Ongarri Argazki Taldeak. Lehiaketan Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek parte hartu ahal izango dute

eta urriaren 6a arteko epea izango dute lanak aurkezteko. Gaia libre da aurten. Hamahiru argazki sarituko dituzte eta saridunek 80 euroko bono bana jasoko dute saritutako lan bakoitzeko.

San Migel jaiak, bete-beteak

Bi urteko etenaren ostean, bete-beteak izan dira aurtengo San Migel jaiak. Antolatzaileek esan dute jende asko ibili dela eta zapatuko afarian, esaterako, 200 bat lagun batu zirela. Berrikuntzen artean autobus zerbitzua nabarmendu behar da. Zapatuan Aiastira igotzeko autobusa jarri zuten jai batzordekoek, 19:00etatik goizaldeko 5:00ak arte, eta lagun askok erabili zutela esan dute, gazteek bereziki. Festaz gain, ohiko lehia eta demak ere ez dia falta izan Aiastian. Bolo Txapelketan Pedro Gomez eibartarra izan zen irabazlea, eta Artzain Txakur Txapelketan, berriz, Matxinbentako artzai Pello Segurola eta 'Jai' txakurra izan ziren onenak. Idi probetan, bestalde, Errezilgo Belamendiren idi-pareak egin zuen markarik onena: 55 plaza. Argazki gehiago: barren.eus



Domekan egingo dute Errosario kaleko amaren ezpata-dantza



Haritz Euskal Dantzari taldeak antolatuta, domekan egingo dute Errosario kaleko amaren ezpata-dantza. San Bartolome parrokian egingo den meza nagusiarekin hasiko da ezpata-dantza, 11:30ean. Eliza barruan, taldeko ezpata-txikiek dantzatuko dute, eta meza ostean, elizako arkupeetan bilduko dira dantzariak. Handik abiatuta, prozesioa egingo dute San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar, Udal Txistulari Bandak lagunduta, eta bi geldialdi egingo dituzte bidean: lehenengoa, Kultur Etxe parean, eta bigarrena, Errosario kaleko ama birjinaren aurrean. Kalegoen plazan bukatuko dute.

65 urtetik gorakoentzako irakurketa kluba sortu dute

Gotzon Garate Udal Liburutegiak ADI+ irakurketa kluba jarri du martxan 65 urtetik gorakoentzako. Astean behin izango dira saioak, eguenetan, 10:00etatik 11:00etara, liburutegian. Saio hauen helburua irakurzaletasuna sustatzea da, eta horretarako irakurketa errazeko liburuak erabiliko dituztela adierazi dute arduradunek. Izena eman edota informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Gotzon Garate Udal Liburutegira joan daiteke, 943 74 35 25 / 688 71 01 38 telefono zenbakietako batera deitu edo liburutegia@elgoibar.eus helbidera mezu bat bidali.

Sotoko Hotsak eta Gararockek musika zaleen agenda markatu dute

Eguraldiak erraz jarri ez arren antolatzaileei, primerako giroa sortu zen joan zen asteburuan Elgoibarren eta Mendaron, Sotoko Hotsak eta Gararock jaialdien bueltan. Barikuan, Aita Agirreko arkupea txiki gelditu zen, Rukula taldeak eman zuen kontzertuan. Giroa hotza zen, baina berotu zuten usurbildarrek iluntzea eta jarri zuten dantzan publiko zabal bat. Gauean, Elle Belgak giro intimoagoa sortu zuen Sotoan. Gararockek ere ez zuen hutsik egin. Azken ordura arte estutu zituen eguraldiak antolatzaileak, eta bi azken orduko mezu ere zabaldu zituzten euriagatik plazatik barrurako bidea egin beharko zutela esanez, baina azkenean, "herri oso baten laguntzari esker" eutsi ahal izan zioten jaialdiaren betiko esentziari. Antolatzailek balorazio ezin hobea egin dute zapatukoaz. Jendetza handia batu zen Garagartzan, asko kanpotik etorritako musika zaleak, eta argi gelditu da bi jaialdi hauek leku sendoa egin dutela musika zaleen agendetan. Argazkiak eta bideoa: barren.eus.





Amagoia Aranburu Arrate

2022ko irailaren 25ean hil zen, 56 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Amagoia Aranburu Arrate

***Maitasuna ez da inoiz itzaltzen,
eta inoiz itzaltzen ez delako,
gogoan zaitugu.***

Zure ilobak



Bitxori Iriondo Etxabe

2022ko irailaren 21ean hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure xumetasuna gogoan,
zure poztasuna guregan,
zure indarra gorputzean,
zure maitasuna bihotzean.***

Etxekoak





25 URTE BETE DITU JENDETXA TRIATLOIAK

 Asier Orbea

Elgoibarko kuadrilla honek Jendetxa izena jarri zion bere buruari, baina jendilaje berba izango zatekeen zuzenagoa, beharbada, izenak ez baitzion erreferentzia egiten kuadrillan jende ugari izateari, gehiago zen euren burua ganorabako moduan ikusten zutela. "Gauzak antolatzea edo norbaitek inizatiba hartzea kosta egiten zitzaigula, alegia", azaldu dute. "Gu gaituk jendetxa/jendaila gu" edo halako bat dago izenaren jatorrian. Kontu batean, baina, ganora eta konstantzia handia erakutsi dute: irailako azken zapatuan egiten duten lagunarteko triatloian, hain zuzen ere.

1 997. urtean egin zuten estreinakoz, artean 20 urte zituztela, eta 25. urtez egin dute aurten, 45 urterekin. Asko dira edizio kopuru horretara iritsi aurretik desagertu diren kirol probak. Badu, hortaz, meritua horrenbeste urtean proba honi eutsi izanak. Urte eta bizitzako sasoi guztiak ez baitira berdinak. Gorabehera handiak izan ditu parte-hartzaileen kopuruan,

dela agenda kontuengatik, sasoi txarrean egotearen aitzakiagatik edo eguraldiagatik. Urte batean parte hartzeko ezezko izan ziren eta gainera eguraldi oso txarra egin zuen, euria goian behean, baina hala ere, hiruzpalau lagunek egin zuten, ohitura eten ez zedin.

OSPAKIZUN URTEA

Igerian, Mutrikuko portuko igerileku naturalean egiten dute. Hiru luze; 144 metro guztira, GPSarekin neurtua baitute. Handik, bizikleta hartu eta Debatik igaro ostean Elgoibarreraino; eta, amaitzeko korrika hiru kilometro Lerun industrialdean. Lehen urteetan Sallobenteraino egiten zuten, baina Maalan sartzeko bidegurutzean semaforoekin sortzen ziren arrisku uneak zirela-eta (artean ez zegoen errotondarik) Lerun inguruan egitea seguruagoa zela erabaki zuten. Kuadrilla kirolzalea direla diote eta ia beti eduki dutela parte hartzeko prest zegoen jendea. Alabaina, kuadrillako lagun, lankide eta familiakoek ere parte hartu izan dute noiz edo noiz lagunarteko triatlo honetan. Hamargarren urteurrena bete zutenean neska talde bat erreleboka ere aritu zen. Horiei guztiei parte hartzeko gonbidapen berezia egin zieten aurten, 25. aldia zela eta. Hala, hamalau lagunek hartu dute parte aurtengoan (sei izan ziren iaz), eta irabazlea iazko berbera izan da, kuadrillako kide baten 18 urteko iloba, Euken Ayerbe. Txirrindularitzan lehiatzen da, eta estu hartu zuen orain arte parte hartu izan duen

guztietan proba irabazi izan duen Ibon Gabilondo, kuadrillako triatloilaria. Odol berria txapeldunen lehia beteranoan. Irabazleak eztabaida sortu zuen lasterbide txiki bat ere hartu zuen bizikleta gaineko azken metroetan, baina hor gelditu zen gaia. Zeresan gehiago triatloia-aren ondoren, proba egitea bezain gozagarria baita bakoitzaren bizipenak elkarri kontatzea. "Egun guztian egoten gara triatloiko gorabeheraz berbetan".

Lehiaz gainera bigarren zati bat edukitzen du Jendetxaren Triatloiak, bazkari eta parrandarekin borobiltzen baitute eguna. "Hor bai aldatu direla

gauzak, kamarada!" dio kuadrillako kide batek. "Konturatzera umez bete zaigu kuadrilla, barren! gazteagoak ginenean parranda ederrak botatzen genituen triatloi egunean, baina azken urteetan nahikoa lan izan dute batzuek umeak hezten, eta apenas egin dugun parrandarik". Aurtengoan ez dute barkatu. Okasio berezia zen eta 25. urteurrenerako ateratako kamisetekin ibili ziren, ia nor atera irabazle sailkapen konbinatuan, triatloia eta parranda uztartzen dituen sailkapen horretan. Ez daukate publiko egiteko asmorik.



Elgoibarko finalerdian bigarren postua eskuratuta sailkatu da finalerako Hodei Ezpeleta

Euskal Herriko Lehen Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatzeko sei plaza zeuden jokoan domekan Elgoibarren jokatu zuten finalerdian. Aizkolarari bakoitzak sei pago enbor ebaki zituen: bi kanaerdiko (54 ontza), bi 60 ontzako eta bi oinbiko (72 ontza). Jokin Urretabizkaia *Basozabal* izan zen lanak amaitzen azkarrena. Aizkolarari donostiarrak 20 minutu eta 55 segundu erabili zituen lanak bukatzeko. Hodei Ezpeleta mendararra sailkatu zen bigarren, 21:51ko denbora eginda, hau da, irabazleak baino 56 segundu gehiago eginda. Hala, egungo txapeladunak titulua defendatzeko aukera izango du azaroaren 27an Bilbon jokatuko duten finalean. Joxean Etxeberriak egin zuen hirugarren Elgoibarren (24:47), eta Xabier Zaldia (25:45)



sailkatu zen laugarren. Luis Mari Txapartegik (26:59) eskuratu zuen bosgarren postua, eta Iban Resanok (27:19) seigarrena.

Badator Idotorbeko Igoera

Julian San Juanen XXX. Oroimenezko txirrindulari lasterketa iristear dela-eta parte hartzera animatu dituzte txirrinduzaleak Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolakoek. Ohi moduan, urriaren 12an, Pilarika Egunean, jokatuko dute (12:00). Txirrindularitzan federatutakoek 5 euro ordaindu beharko dute parte hartzeko eta 10 euro gainerakoek. Izen-ematea egunean bertan izango da, 10:30etik 11:30era, eta ordainketa ere une horretan egin behar da. 12:00ak bitartean lizentzia ez daukateneri segura tramitatuko diete. 2007a baino lehenago jaiotakoek parte hartu dezakete Idotorbeko Igoeran. Era berean, hurrengo



denboraldia prestatzen ari dira Lagun taldeakoak eta ume eta gazteak taldera batzeko asmoarekin bilera informatiboa antolatu dute urriaren 6rako, Kultur Etxean. 18:30ean izango da 2009tik-2014ra jaiotakoentzako batzarra, eta 19:30an 2005tik-2008ra bitartean jaiotakoentzakoak.

Sanloren garagardo azoka, urriaren 6tik 9ra

SanloBeer garagardo festa antolatu du Sanlo eskubaloi taldeak berriro ere, azken bi urteetan antolatu gabe egon eta gero. Egunean, urriaren 6an izango da inaugurazio ekitaldia Maalako parkean egongo den karpan (18:30ean). Janedanaz gainera, zuzeneko musika emanaldiek, bingoak edo dantzaldiek girotuko dute garagardo azoka, lau egunetan, urriaren 6tik 9ra bitartean.



Maite Maiorak hirugarren egin du Bulgariako Pirin Extreme mendi lasterketan



✍ FotoIosu

Bulgariako Bansko herrian jokatu zuten irailaren 24an Pirin Extreme mendi lasterketa. 38 kilometroko lasterketa izan zen, 3.300 metroko desnibel positibokoa, eta korrikalariak hiru mendi igo zituzten: Kutelo (2.908 m), Vihren (2.914 m) eta Todorka (2.746 m). Emakumezkoetan antxixikari euskaldunak izan ziren nagusi, Euskal Herriko hiru emakumek osatu baituzten podiuma. Oihana Azkorbebeitia korrikalari abadiñarra (Merrell taldea) izan zen azkarrena (5.50.29). Denboraldi honetan Munduko Kopan irabazten duen hirugarren garaipena du Azkorbebeitiak. Millet taldeko Sandra Sevillano korrikalari santurtziarra sailkatu zen bigarren (5.55.21), eta RaidLight taldeko Maite Maiora mendarorarrak eskuratu zuen hirugarren postua (5.58.07), irabazlearengandik ia zortzi minutura helmugaratuta. Skyrunner Munduko Kopako zirkuitua Zeanurin jokatu duten finalarekin amaituko da, urriaren 8an. Gorbeia Suzien mendi lasterketan lehiatuko dira munduko mendi lasterkari onenak. Maiora sailkapen nagusiko laugarren postuan ailegatuko da finalera.

“Aizkora Hotsak goi mendietan” dokumentala emango dute gaur Mendaron

Gaur, hilak 30, 20:00etatik aurrera, *Aizkora hotsak goi mendietan* dokumentala ikusteko aukera izango da Mendaroko San Agustin aretoan. Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolari mendarorarrak eta Alex Txikon mendizaleak Pakistanera egindako bidaia kontatzen duen dokumentalaren proiektzioa aurkeztera etorriko dira protagonistak eurak. Felix Iñurrategi Fundazioarentzat automobila dohaitzan emateko helburuarekin egindako bidaian 10.000 kilometro egin zituzten eta tartean aizkora erakustaldiak eskaintzeko aukera ere izan zuten. Gasteizko Mendifilm jaialdian ordubate pasatxoko iraupena duen lanak euskarazko filmik onenaren saria jaso zuten.

Ainhoa Lendinezek bi kilometro bertikal irabazi ditu asteburuan, Ondarroan bata eta Canfrancen bestea



Aurrera Mendi Taldeak eta Ondarroako Gazte Asanbladak elkarlanean antolatutako Tontorramendira igoera bertikala jokatu zuten zapatuan. Aitor Ajuria otxandioarra eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra izan ziren azkarrenak 1,8 kilometroko ibilbidea osatzen. Lendinezek 20 minutu eta 40 segundoan egin zuten Ondarrutik Tontorramendi (386 m.) mendi gainera arteko igoera. Hurrengo egunean Canfranceko igoera bertikalean lehiatu zen Lendinez, Huescako Pirinioetan. 3.800 metroko ibilbidean 1.110 metroko desnibel positiboa gainditu zuten parte hartzaileek, 2.440 metroko garaiera duen El Porte mendiaren gailurrean amaitzen zen proban. Emakumezkoetan Morkaiko mendi taldea ordezkatu zuen Ainhoa Lendinezek egin zuten denbora onena: 59:50.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest nago. Etxeko langile moduan lan egiteko prestutasuna. Esperientzia daukat.

688 896 630

Adinekoak zaintzeko edo garbiketaria lan egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. Esperientzia handia daukat.

631 357 711

Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Arreta soziosanitarioko titulazioa daukat eta praktikak eginda.

635 666 620

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Bulego, etxe edo lantegietan garbiketaria lanak ere egingo nituzke.

685 724 861

Geriatriako laguntzailea, adinekoei edo menpekoei laguntzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientzia handia ditut.

660 511 781

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Gauzez ere bai. Titulua daukat. 631 425 686

Adinekoak zaintzeko prest nago. Beharrezkoak diren tituluak eta esperientzia ditut. Orduka, etxeko langile moduan edo gauzez lan egingo nuke. 697 730 662

Lan bila nabil: 15 urteko esperientzia daukat adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten. 669 967 171

Merkatu txikiko iragarkiari bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiari ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).

Autoak saltzea: 18€ .

Bestelakoak: 10€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).

Autoak saltzea: 15€.

Bestelakoak: 8€.

Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Administraziozaleen Lantalde Komunitatea</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitateko garajeetako gune komunitatean eta baita plaza pribatuetan ere pintura poteak, eskilarak, apalak eta bestelako elementuak utzi ditu jendeak. Jakin nahi nuke komunitateko lehendakariak agindu dezakeen elementu horiek kentzeko edo Jabedunen Batzarrak hartu behar duen erabakia.</p> <p>Egoera honen aurrean egokiena izaten da Jabedunen Batzarra egin arte itxarotea. Zuk aurkeztu diguzun kasua komunitateko arazo zehatz bat baino zabalagoa da. Aipatzen duzuna ez da kasu isolatu bat, baizik eta komunitateko kideen utzikieriazko jokabidearen eraginez gertatu den egoera bat. Beraz, egokiena izango litzateke garajeetako jabe guztiek onartzea gune komunitateko libre utzi behar direla eta pribatuak autoa aparkatzeko soilik erabiliko direla, bestelako edozein erabilera komunitatearen kalterako izango delako.</p> <p>GOMENDIOA: Komunitateko lehendakariak erabakiko balu elementu horiek guztiak kentzea, berak erabaki beharko luke non utziko dituen, eta horrek, elementuak galtzeko edota kaltetzeko arriskua dauka. Hortaz, formalki deitutako Jabedunen Batzarrak hartu beharko luke erabakia.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Itxaso**, gaur 9 urte bete dituzulako! Ondo pasatu eta muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, gure etxeko sorgin txikiari! Igandean 4 urte, **Jare!** Muaaaaa.



Zorionak, zuen urrezko ezteietan. Seguru bihar primeran pasatuko dugula. Muxu handi bat familiakoan partez.



Zorionak, **bikote**, eta eskerrik asko egun ahaztezina gurekin partekatzeagatik. Primeran pasatu genuen.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Arrats pub salgai, erretiroagatik.

Harremanetarako:
943 755 058
688 627 738

Zelaiakua Plaza, 2 - 20850 Mendara




Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARko eta **MENDARO**ko
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en eta egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.

EXPRESS ESKAINTZAK!

WUU24T62ES BOSCH
ARROPA GARBIGAILU TXURIA





499 €

- 9 kg-ko karga
- 1.200 b/min
- Speed perfect programa

- Eco Silence motorra
- Etenaldia + karga funtzioa



Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

30 BARIKUA

19:00 Zine foruma: 'La teta asustada'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, Lilan.

20:00 Bideo emanaldia: 'Aizkora hotsak goi mendietan'. Alex Txikon eta Bihurrirekin. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

20:00 Elkarretaratzea: euskal preso eta iheslarien alde. Sarek deituta, Kalegoen plazan.

1 ZAPATUA

10:00 Aurkezpena: 'M ama*, eme* ume*' liburua aurkeztuko dute Erika Lagomak eta Estitxu Fernandezek, Lilan.

2 DOMEKA

Meza ostean Errosario kaleko amaren ezpata-dantza. Haritz EDT-k eta Udal Txistulari Bandak antolatuta, Kalegoen plazan.

5 EGUAZTENA

19:00 Hitzaldia: *Desde Extremadura al euskera*. Jon Maia bertsolariak emango du saioa. Aita Agirreko areto nagusian.

6 EGUENA

19:00 Sanlo Beer garagardo feriarene irekiera. Hilaren 9ra arte egongo da, Maalako parkean.

19:00 Energia Komunitateei buruzko hitzaldia. Karakate Bizirik plataformak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

7 BARIKUA

Denden ordutegian Stock Feria. Denden kanpoaldean jarriko dituzte eskaintzak bariku eta zapatuan.

18:30 Mahai-ingurua: 'Dolu perinatala ikusaraziz'. Esku Hutsik elkarteak antolatuta, Lilan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Black is beltza II: Ainhua'

30 barikua: 19:00
1 zapatua: 19:00 /
22:15
2 domeka: 19:00
3 astelehena: 21:30

'La ley de Teheran' (Ongarri zinekluba)

5 eguaztena: 21:00

<p>Botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00</p> <p>GUARDIAK:</p> <p>Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)</p>	<p>IRAILA 30 BARIKUA</p> <p>URRIA 1 ZAPATUA 2 DOMEKA 3 ASTELEHENA 4 MARTITZENA 5 EGUAZTENA 6 GUENA 7 BARIKUA</p>	<p>Egunez ■ Oruesagasti</p> <p>Barrenetxea Barrenetxea ■ Ibañez Garitaonandia Arriola ■ Fernandez Yudego</p>	<p>Iluntzean Arriola</p> <p>Barrenetxea Barrenetxea Barrenetxea Garitaonandia Arriola Garitaonandia Yudego</p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	
<p>Urte guztian, gauez: 22:00-09:00 - Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106</p>			



Amagoia Aranburu Arrate

2022ko irailaren 25ean hil zen.

*Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen goxoa
ezerk ez du lausotuko.*

Zure lankideak.



Amagoia Aranburu Arrate

2022ko irailaren 25ean hil zen.

*Zure mina gordea,
agerian adorea,
zu ezagutu izana,
guretzat ohorea.*

Elgoibarko Udala




Amagoia Aranburu Arrate

1965-2022

*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte bakarrik.*

*Zure irribarrea eta alaitasuna
ez zaigu inoiz ahaztuko.*

Maitasunez, zure lagunak.





ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA



Urriak **7-8**
10:00-13:00 eta 17:00-20:00



Postuak establezimendu atarietan egongo dira.



Parte-hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira.